



Oinarrizko baliabideak

Dirua beharko dugu gure dutxa adimendunen proiektua aurrera eramateko: produktuak fabrikatzeko, ikerketa egiteko, publizitatea ordaintzeko eta instalazio zerbitzua martxan jartzeko. Horretarako, hainbat finantziazio-iturriren beharra izango dugu.

KAPITALA

- Sortzaileek eta inbertitzaile pribatuek hasierako kapitala jarriko dute proiektua martxan jartzeko.
- Gainera, kanpaina bat egin daiteke gure dutxa berritzailea merkatura ateratzeko.

DIRULAGUNTZAK

- Eusko Jaurlaritzak berrikuntzari eta ingurumenari lotutako laguntzak eskaintzen ditu, eta gure produktuak ura aurrezten duenez, egokia izango litzateke horietara aurkeztea.
- Era berean, I+G berrikuntza programetako laguntzak eskatu daitezke teknologia garatzeko eta hobetzeko.

MAILEGUAK

- Proiektua martxan jartzeko, bankuen maileguak ere erabil ditzakegu. Adibidez: Kutxabank, Caixabank edo Laboral Kutxa.
- Hasierako gastuentzako banku-maileguak interes baxuekin negoziatu daitezke, enpresa berritzaileentzat egoten diren baldintza bereziekin.